

## EPPK saluda la movilización y reclama una solución integral

El Colectivo se siente «muy orgulloso de nuestro pueblo» y cree que Madrid y París han visto que tienen a Euskal Herria enfrente. Reitera que «se equivocan» al insistir en fórmulas individuales y les traslada que «la idea de amnistía significa para nosotros resolución democrática integral».

La movilización del pasado sábado ha llenado de satisfacción al Colectivo de Presos y Presas Políticos Vascos (EPPK), según explican en un comunicado remitido a GARA, en el que constatan además que la demanda de cambios en la política carcelaria «ha llegado hasta las mismas puertas del Gobierno espa-

ñol». Le trasladan que el Colectivo está dispuesto a seguir dando pasos adelante, pero le instan a abandonar el intento de buscar soluciones individuales al tiempo que impone unas medidas de excepción generalizadas. Añade que «sería una irresponsabilidad» no abordar una solución integral. >5

### REPORTAJE RAMON SOLA


Una ola que supera muros y fronteras >2-4

### Arrestados cerca de París tres miembros de ETA

La policía francesa detuvo ayer en Joigny, al sur de París, a tres presuntos militantes de ETA, uno de los cuales podría ser el vecino de Gasteiz Jon Etxeberria Oiarbide, según informaron fuentes españolas. Los tres fueron llevados a la comisaría de Auxerre. >17

### La Ertzaintza detiene a Ekaitz Samaniego

Ekaitz Samaniego hizo acto de presencia después de la multitudinaria manifestación en favor de los derechos civiles y políticos celebrada en Gasteiz. Encaramado a una balconada de El Corte Inglés, fue detenido entre gritos de ánimo de los presentes. >18



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

### KRONIKA > 7

OIHANE LARRETXEA

Txominen oihal bera

### SOSLAIA > 8

JOXEAN AGIRRE

Arrastoa utzi duen gizona

### IRITZIAK > 9-11

PATXI URRUTIA  
LAURA MINTEGI  
PATXI SALABERRI  
GAIZKA ARANGUREN  
PATXI ZABALETA  
MIREN AZKARATE

## TXILLARDEGI HIL DA


Amaita EREÑAGA

Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegiren heriotzak dolumin olatu bat sortu zuen atzo Euskal Herrian. Era batera edo bestera XX. mendeko bigarren erdian jazo ziren gertakari historiko garrantzitsuenei lotua egon zen gizona, atzo goizean hil zen Donostian. Euskararen eta aberriaren aldeko militantzia gazte-gaztetatik garatu zuen: nazionalismo tradizionalarekin hautsi ondoren, ETAREN sortzaileetarikoa izan zen Txillardegi, euskara batuaren sustatzailea, militante abertzalea, euskal eleberriarren berritzailea, saiakera idazle originala, hizkuntzalari bikaina... eta, guztiaren gainetik, euskaltzalea. Hil kapera gaur 15.15ak arte egongo da Errekaldeko beilategian. Ezker abertzaleak omenaldi nazionala eskainiko dio Donostian hilak 29an. >6-11

EGUNEKO GAIAK

EG2

TXILLARDEGI HIL DA



# Agur eta ohore Jose Luis Alvarez Enparantza abertzaleari

«Argi dago: euskarak eraman ninduen abertzaletasunera. Nire ustez, euskaltzale batek derrigor izan behar du abertzalea, ez baitago soluziorik abertzaletasunik gabe». Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegi» euskaltzale eta idazlearen hitzek bere arima irudika dezakete. Atzo zendu zen Donostian, 84 urte zituela, luzaroan pairatutako gaixotasun baten ondorioz.

Amaita EREÑAGA

Hizkuntzalari fina, euskara batuaren sustatzailea, idazle oparo eta berritzailea, militante abertzalea, ETAREN fundatzaileetarikoa bat, gizon maitagarria... Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegia atzo itzali zitzaigun Donostian, ia urtebetez gaixorik egon ostean. Ez diote hileta elizkizunik egingo, baina, Joseba bere semeak atzo adierazitakoaren arabera, gaur familia giroan erraustu ostean, agur ekitaldia egingo diote datorren astean Donostian. Ezker abertzaleak ere hilaren 29an omenaldia eskainiko diola iragarri zuen atzo.

Gure herriaren ibilbidearen lekuko eta eragile aktibo izandako gizona Donostiako Antigua auzoan jaio zen 1929. urteko irailaren 27an, erdal giroko fa-

milia batean. Orain dela bi urte, urrian zehazki, Fermin Munarrirek elkarrizketa sakona egin zion GARAn, eta, bertan, euskarak bere bizitza eta pentsamoldean sustraiak nola bota zituen argitu zuen. «Nik txiki-txikitik pentsatu dut euskara nire hizkuntza dela, herriak esaten duen bezala: 'euskal' herria (*pueblo del euskara*, literalki, ezta?). Orduan, niretzat ez zen posible Euskal Herria euskararik gabe. Jakina, nik konprenitzen nuen horretarako behar zirela tresna politikoak, behar zirela euskal telebista... behar zirela gauzak, gero lortu ditugunak. Garai hartan ez zegoen ezer. Orduan, planteamendu politiko bat egin behar zela esaten nuen. Ni abertzalea naiz, euskara ez dakien jende asko dago hemen, baina horiek ere laguntzaile

izango dira borroka honetan, eta, horregatik, euskal politikan ere sartu nintzen».

Bilbon ingeniarietza ikasketak egiten ari zenean hasi zen militatzen eta... orduan kartzelaratu zuten lehen aldiz ere. «Ikusi behar da nola zegoen euskal mugimendua. PNVkoak desastre bat izan dira euskara kontuetan (...). Ni gogoratzen naiz behin egon nintzela Javier Landabururekin —orduan erbestean zegoen Eusko Jaurlaritzako lehendakariordea zen— eta galdetzen zidan: '¿José Luis, no aceptarías tú una Euskadi libre sin euskera?'. Eta nik: '¿Pero cómo voy a aceptar una Euskadi sin euskera; eso a mí no me interesa!'. Eta besteak: '¿Pero cómo que no te interesa?'. Pues claro que no me interesa. Euskal Herria da euskararen herria!'. Berak ez zuen ulertzen. Eta nik pentsa-

tzen nuen: 'Landaburu hau non bizi da? Zer mentalitate dauka?'. Eta PNVko jende asko horrelakoa zen. Hau desastrea...».

1950ean, Eusko Ikasleen Alkartasunako partaide izateagatik atxilotu eta espetxeratu zuten; urtebete geroago, hala ere, Ekin antolatutako zuten artean zen. Gerora, ETAREN aitzindaria bihurtuko zen Ekin. «PNVrekin genituen harremanak txarrak ziren. Beraiek 'los estados vascos' zituzten ahotan beti (...). Gauzak garbi uzteko ordua iritsi zela pentsatu genuen. Gu ez gara PNVkoak, ez dugu ezer jakin nahi PNVkoekin eta goazen organizazio ezberdin bat sortzera. Eta hori izango zen Euskadi Ta Askatasuna».

1958. urte bukaeran lau lagun bildu ziren Deban —Benito del Valle, Julen Madariaga, Iñaki Larra-

mendi eta Txillardegia bera—, eta han ETA sortu zen. Erakunde berria Txillardegik «bataiatu» zuen, «euskaraz besteek baino gehiagorik nekielako. Hasieran pentsatu genuen Aberri Ta Askatasuna izena jartzea, baina siglek ATA ematen zuten eta Bizkaian 'ata' [ahate] *pato* da... Ez zen egokia. Orduan, ATAREN ordean, ETA bota nuen; hitzak konjuntzioaren esanahitik aparte ez zuen besterik (...). Julen Madariagak horrelako esaldi historiko bat esan zuen: 'Pronto la sigla ETA será más conocida que la sigla EOKA' (Zipreko alde greziarraren alde borrokatzen zen erakundea garai hartan), eta, bai, arrazoia izan zuen...». Madariaga eta besteak erakundearen adar militarrean joan ziren bitartean, Txillardegia euskararen adarrean aritu zen, ikastolen bultzatzaile bihurtuz.

KRONIKA &gt; Oihane LARRETxea

# AGURRA, TXOMINEN HILOTZA ESTALI ZUEN OIHAL BERAREKIN

ALTXORRA BEZALA, ONDO BAINO HOBETO GORDETA ETA ZAINDUTA ZUEN TXILLARDEGIK BERE ETXEAN 1987. URTEAN TXOMIN ITURBE ABASOLO LAGUNAREN GORPUA ESTALI ZUEN OIHALA. ERRAUSTU AURRETIK, TXILLARDEGIK BERTZAT NAHI ZUELA ERABAKI ETA ESKATU EGIN ZUEN ORAIN DELA 25 URTE.

Oroitzapenez betetako oihala da atzo Txillardegiren gorpuari jarri ziotena. Senideek jarri zioten, beretzat zuen esanahiaren jakitun. Bere lagun izandako Txomin Iturbe Abasolo 1987an Aljerian hil zenetik gordeta zuen. Horrenbestez, arrasatearraren hilotzean jarri zuten oihalak estali zuen atzo Txillardegiren hilotza. Oihala granate berbere berak. Oihalak ordezkatzeko zituen sentimenduen jakitun, azken unean Txillardegik gorde egin nahi zuela erabaki eta eskatu egin zuen. Lagunari lotuta egoteko modua zen.

Zapiarekin izan zuen keinuak deskriba dezake Txillardegiren izateko modua, atzo Xabier Mendiguren idazle eta editoreak hizpide izan zuen izateko modua. «Ezagutzen genuen denok esango dugu pertsona goxoa zela. Iritzietan erradikala zen, baina hala izan behar zuela uste zuelako. Adiskidetsua zen», adierazi zuen beilatokian.

Donostiako beilatokira bertaratu zen Mendiguren, kultura nahiz politika arloko beste ordezkari asko bezala. Besteak beste, Eako Juanjo Agirrezabala, Rufi Etxeberria eta Joseba Permach ezker abertzaleko kideak, Irungo Oiasso museo erromatarreko zuzendari izandako Karmele Barandiaran edota Iñaki Egaña historialaria. Baina beste hamaika lagun ere hurbildu ziren beilatokira, aurpegi «ezagunen» artean kazetarietzat «anonimoak», donostiar arruntak, Txillardegiren bizilagunak, era batera edo bestera maite zutenak.

Hitzak barruan pilatzen dira halako uneetan. Oroitzapenak arrapaladan doazenean, hainbeste, eta, aldi berean, hain gutxi esateko gai da gizakia... hitz egitea ez da erraza. Nola asmatu hitzekin? Laudorioen artean «erreferente» izan zen, ezbairik gabe, behin eta berriz errepikatu zen hitza.

Joxe Austin Arrieta idazle donostiarrak nekez bildu zituen indarrak. Laguna baino gehiago, Txillardegi «aita espirituala» zuela esan zuen, «bizitzeko modu baten irakasle» zela iritziat.

Gizon ausarta eta ipurterrea, «humanista handi bat» zela erantsi zuen Mendigurenek. Nekaezina, interes handia erakutsi zuen literaturaren inguruan, filosofiaren gainean. Gauza berriak ikasi eta jakiteko asegabeko gosea sentituko balu bezala, pianoa jotzen zuela go-

gorarazi zuen Mendigurenek, baita «irakurle amorratua» zela ere. «Buruargia zen, bai –erantsi zuen–, baina ez kultura eta literaturan soilik, baita gizartean ere. Hain zen jakintsua... eta, hala ere, apala zen oso».

Halaber, «euskara batua sortzeko egin zuen ahalegina» azpimarratu beharra dagoela adierazi zuen editoreak, Txillardegi bera izan baitzen egungo euskararen «motorra».

Donostiako alkate Juan Karlos Izagirrek, Mendigurenek bezala, «zoritzarrez» azken unea heldu zela adierazi zuen, ezinbestean «aurrera egin beharra» dagoela gaineratuz. Bere izenak eta obrak duen pisua aintzat hartuta, «Euskal Herriak eta Donostiak» ikono bat galdu dutela iritzi zuen Izagirrek, eta oraingo belaunaldiak Txillardegiren lekukoa hartu eta hasitako bideari jarraipena ematea dagokiela gaineratu zuen.

Askoren ahotan izan zen atzo ere Txillardegiren «ausardia», etengabe gauzak egitera bultzatzen zuena. Ausardia horrek hainbat arlotan aitzindaria izatera eraman zuen; «hortxe dago –zioen Mendigurenek– euskal literatura modernoaren lehenengo nobela».

Txanda orain, gaurko belaunaldiena da. Utzitako obratik, esandako hitzetatik eta egindako keinuetatik ikasteko. Txanda, beraz, Txillardegik oihala preziatua zaindu zuen maitasun berarekin guk bere ondarea kontserbatzeko.

Txillardegi, bere etxeko estudioan, 2010eko urrian GARARI eskainitako elkarrizketarako ateratako argazkian.


Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Garai berean Federiko Krutwig eta Koldo Mitxelenaekin lanean ere aritu zen Txillardegi euskara batuaren garapenean. «Nire planteamendua Mitxelena esaten zuena egitea zen; hemen, arrazoi biologikoengatik ere, gazteek dute etorkizuna, ez zaharrek. Orduan, zaharrak beren bizkaitakeria zentzuarekin zeuden; PNV zen garai hartan oso muturreko bizkaiera erabiltzen zuena, eta guk esan genuen hemen gauza zentral bat egin behar zela. Mitxelena posizio horretan zegoen. Eta Mitxelena aldea jarri ginen. Ni pertsonalki ere bai. Harreman estua izan nuen Koldo Mitxelenaekin. Azkenean, Mitxelena inposatu egin zen. Mitxelena zekien euskarari buruz gu guztiok baino mila aldiz gehiago. Euskarak eman duen jakintsurik handiena Mitxelena izan da».

1960an, denboraldi bat kartzelan pasa ostean, Ipar Euskal Herria joan zen ETaren lehen erbesteratu publikoa izan zen. Hamasei urte eman zituen erbestean –Parisen, Iparraldean,

Bruselan...–, eta, halere, oso oroitzapen onak zituela onartzen zuen. Franco hil ondoren, Hego Euskal Herria itzuli eta unibertsitatean lanean aritu zen. Hori bai, ibilbide politikoa eta konpromisoa ez zituen bertan beharra utzi; horren erakusle, HBrekin hauteskundeetara aurkeztu zen 1979an, Aralarrekin 2005ean eta EAE-ANVrekin 2008an.

Zaila da oso Txillardegirena bezalako ibilbide oparoa laburbiltzea, euskal literatura ere berritu baitzuen, eta, hizkuntzalari bezala ere inork ez baitu bere lana zailtzan jartzen... Hori bai, ardi galdua izan zen. «Nire ustez, ni ez naiz euskaltzain oso arrazoi zaharregatik eta politika arrazoiengatik, dudarik gabe», onartzen zuen. Azken urteotan bere inguruko ikerketa ugari argitaratu dira, besteak beste, UEUK 2000. urtean “Lagun giroan”, 2004ean Elkarrek “Txillardegi. 75 urte euskararen aldeko borrokan” eta 2005ean Henrike Knorr euskaltzainak eta Pilartxo Etxeberriak “Nerekin yaio nun. Txillardegiri omenaldia”.




Joseba Alvarez, Txillardegiren semea, Juan Karlos Izagirre alkatearekin hizketan, atzo.

Gari GARIALDE | ARGAZKI PRESS

SOSLAIA

# Arrastoa utzi duen gizona



Txillardeggi, Euskal Sozialista Biltzarreko mitin batean hitz egiten. EUSKAL SOZIALISTA BILTZARRA

**O**raindik haurra zela sentitu zuen hiltzen ari zen hizkuntza baten aldeko grina eta debekaturik zegoen aberri baten nostalgia eta bi samin horiek, bi maitasun horiek gidatu dute hil berri den Txillardegiren bizitza, hizkuntzalaritzan, euskara batuaren aldeko lanean, eta abertzaletasun berri baten aldeko borrokan utzi baitu arrastorik gehien.

Bi konpromiso horiek poz adina sufrikario ekarri diote bizitzan zehar. Sufrikario handienak beharbada konpromiso politikoak ekarri dizkio: 30 etxetik gora aldatu zituen erbestean egon zen urteetan eta horietako gehienak presaka abandonatu behar izan zituen, polizia horretara behartuta. Baina euskararen alde egin zuen ibilbideak ere ekarri zion samini, bere jarrera politikoak zirela tarteko, baztertu egin baitzuten behin eta berriz. Arantza hori barruan zuela bizi izan da urte askoan, samin hori isilka eraman badu ere. Gogoratu, bestalde, 1980an ESBtik bota egin zutela erakunde horretan euskarak behar zuen lekuaz eztabaida gogor bat piztu ondoren.

Gauza asko izan da Txillardeggi: literaturagile, idazle, hizkuntzalari, ekintzaile, pentsalari eta irakasle. Belaunaldi batek "Huntaz eta hartaz" liburuko saiakera laburrak irakurritz ezagutu genuen Txillardeggi. Teilhard de Chardin, Kierkegaard eta Ghandi aipatzen ziren han behin eta berriz eta Sartreren nahiz Bertrad Russellen aipuak biltzen zituen, garaiko gazte askok ikur bakartzat marxismoa zutenean. Txillardeggi, ordea, ezberdina zen eta izan da geroztik ere. Humanista bat zen. Kolektiboa gizakia zapaltzen duen makinaria bat zela uste zuen eta ideia horri eutsi egin zion, bere erreferentzia nagusienetako batzuk, Sartrek esate baterako, ziaboga harrigarri bat egin eta Parisko gazte maistekin bat egiten zuen bitartean. Txillardegiri, noski, marxismoa hirugarren munduko korrante ideologikoa iruditzen zitzaion.

Adinak ez du barkatzen eta azken urteak erretiraturik bizi izan ditu Txillardegik, baina orain hogeita hamar urte Torrealdaik "Euskal idazleak gaur" liburua prestatzeko inkesta bat burutu zuelarik, Txillardeggi agertzen zen idazle maitatuen zerrendako lehen postuan.

Literaturari dagokionez, Txomin Agireren nobelak irakurri ondoren "Leturiaren egunkari ezkutua" irakurtzea amildegi batera jauzia egitea bezala izan zen guretzat. Baina literatura eginkizun marginalizat zuen berak eta bere eragina ere marginala izan dela esan daiteke arlo honetan, bere nobelak tesi nobelak direlako,

Baina euskararen alde egin zuen ibilbideak ere ekarri zion samini, bere jarrera politikoak zirela tarteko, baztertu egin baitzuten behin eta berriz. Arantza hori barruan zuela bizi izan da urte askoan, samin hori isilka eraman badu ere. Gogoratu, bestalde, 1980an ESBtik bota egin zutela erakunde horretan euskarak behar zuen lekuaz eztabaida gogor bat piztu ondoren.

## Joxean AGIRRE

Kazetaria eta "Hitza hitz. Txillardegirekin solasean" (Elkar) liburuaren egilea

linealegiak, literatura modernoa markatu duten autoreei jaramon gehiegi egin gabe idatziak. Bere garaiko erronka intelektual eta sozialei erantzuteko edo bere kezka metafisikoak agertzeko baliatu zuen literatura eta inork ez dio ukatuko Arestirekin batean euskal literaturaren aro berri bat zabaldu ez zuenik.

Euskara batuaren aitzindari izan zen Krutwig-ekin batean, artean euskaltzain asko zalantza betetik zebiltzanean eta geroztik, euskararen normalizazioaren aldeko erakunde eta ekimen guztietan hartu du parte.

Hala ere, bere ibilbide nagusia, gure historia hurbila erabat markatu duena, politikoa izan zen. Ekin-en sortzaile izan zen eta ETArekin sortzaile ondoren.

Badira 16 urte, Elkar argitaletxearen aginduz, berari elkarrizketa luze bat egiteko zoria izan nuela. Elkarrizketa horien emaitza izan zen "Hitza hitz. Txillardegirekin solasean" liburua. Amasan zuen baserrian bildu ginen ez dakit zenbat arratsaldetan, hormak liburuz estaliak zituen egongela batean. Anaia gazteagoa hil berria zuen eta heriotzaren gaia ere aipatu genuen. «Anaia ni baino gazteagoa zen

eta urtebete eman du ohean inolako esperantzarik gabe. Nik astero egiten nion bisita eta horrek bultzatzen zaitu heriotzari buruz pentsatzera. Baina, egia esan behar badut, ez diot gaiari buelta gehiegirik ematen. Fatalitate handi batez ikusten dut heriotza. Badakit egunen batean etorriko dela eta kito!», zioen erantzunetako batean. Ea hilezkortasunak axola zion galdetuta, berriz, «kezka hori gizatiarra dela uste dut, baina bestalde erabat komikoa iruditzen zait. Begira. Nik bolada luze batean Andromedaren argazki handi bat izan nuen nire gelako horman zintzilik. Tarteka oraindik prismatikoak hartu eta oso gau garbia denean saiatu ohi naiz Andromeda Kasiopea aldean aurkitzen. Gure begientzat lainoxka bezala da, baina bi milioi urte behar ditu argiak handik hona iristeko. Gure Esne Bidearen ahizpa bizkia da, 200.000 milioi izarrek osatua eta izar pilo hori hor bertan, auzoan, dagoen galaxia bat baizik ez da, beste milaka galaxia daude unibertsoan. Magnitude horietan pentsatzen jarrita, mingarria da gure harrotasunarentzat, baina ez gara ezer eta gure hilezkortasuna komikoa da benetan», erantzun zuen.

Txillardeggi bera aspertuxea zegoen bere bizitzako gorabeherak kontatzen eta gogaigarria ere iruditzen zitzaion batzuetan nire galderai erantzuten arratsaldeak galdu beharra. Bisitatzen nuen aldiko hamar bat galdera uzten nizkion hurrengo bisitarako prestatu zitzen, baina galdu egiten zitzaizkion paperak edo nahita galtzen zituen, ez dakit. Hala ere, plazer izugarri bat izan zen berarekin buruz buru hainbat gaitaz hitz egitea. Liburuaren azken zatia izan zen beharbada askorentzat nolabait esateko goxoena, bere seme-alabek, eguneroko bizitzaz, liburuetaz, bakardadeaz edo zahartzaroz aritu zelako.

Baina elkarrizketa horietan jorratu genuen garairik interesgarrienak Ekin-en eta ETA-ren sorrerakoak dira eta hunkigarrienak haurtzaroi buruzkoak. Edozein gairi buruz ari zela, dena den, dotorea zen Txillardeggi, beti zuen aipu jakingarriren bat, beti tartekatuko zuen pasadizoren bat. Matematika zuen gogoko (Einsteinen erlatibitatearen teoriaren liburu sail bat irakurri zegoen), ingeniaria zen, astronomia eta musika maite zituen (bi mundu horien artean lotura estuak daudela uste zuen) eta gauzak kontatzeko eta idazteko moduan ere nabari zitzaion argitasun nahi hori eta bertute horiek umore tanta batzuekin goxatzen zituela erantsi behar da. Mitxelena, Krutwig, Aresti...badaude joan den mendearen bigarren zatia markatu zuten beste zenbait pertsona Euskal Herrian, baina ez dago zalantzarik Txillardegiri leku pribilegiatua zor zaiola talde horretan.


# Huntaz eta hartaz

Patxi SALABERRI MUÑOA Hizkuntzalaria

**O**raintxe bertan jakin izan dut, Jose Luis. Joan zataizkigu. Zirrara batek astindu dit gorpuzta. Ezinegona hasieran, hotza gero. Eskuak berotu behar izan ditut arkatza hartu ahal izateko, zutaz oroitzeak adiskide ona baitakarkit lehendabizi gogora, baina baita papera eta hizkuntza bera ere. Mundu madarikatu hone-

tan eragiteko premia; euskaraz ahoratzen eta papere-ratzen den premia larria. Hamaika gauza gehiago gogora, gero. Bi hitz baino ez, dena den. Lagun izan zaitugu. Lagun min. Buruz buru ezaugutu aurretik ere, gidari eta maisu zintugun. Bizitza higatzen duen denborak adiskideago eta maisuago bihurtu. Zurekin ikasi dugu euskaraz, eta ikasi koherentziaz; ikasi dugu abe-

rriaz, ikasi lanaz; ikasi dugu duintasunaz eta ikasi apaltasunaz; ikasi dugu gizakiaz eta ikasi -barka, otoi, jolasa- jainkoaz eta deabruaz. Halakotz, botereak infernuetaratu ohi dituen guztien non serviam aldarriaren oihartzun euskalduna izango dugu beti zure irudiaren gainean josia. Ez adiorik, Jose Luis. Besarkada haundi bat.



Ezkerreko irudian, Jose Luis Elkoro, Kristiane Etxaluz, Txillardegia eta Alfonso Etxegarai deportatua Sao Tomen. Eskuinean, Cabo Verden euskal deportatuekin 8oko hamarkadan.

GARA

## Txillardegiren konfidentzia

Gaizka ARANGUREN Kazetaria

**Z**oozko ekainaren 30, igandea. Noingo Batailaren urtemuga zen. Getzeko pilotalekuan ekitaldia egin berria genuen. Nabarralde ekimenaren lehen urteak ziren. Nafarroa, euskaldunon adierazpide historiko, politiko eta instituzionala, lurralde batasunerako eta independentziarako diskurtsoaren erdigunean ezarri beharraz jabetuta geunden.

Pilotalekuko ekitalditik ateratzerakoan Txillardegirengana jo nuen. Ekitaldira etorri izana eskertu eta entzundakoaz bere gogoeta eskatu nion. Hitzez-hitz, zehaztasun osoz haren errana errepikatzea ezinezkoa bazait ere, horrelako zerbait kontatu zidan:

«1958 edo 1959 izango zen. Federicorekin (Krutwig) batera Anacleto Ortuetairengana joan ginen. Igorren zuen baserria. Hark Nafarroaz zioenaren berri bagenuen, baina lehen eskutik jaso nahi genuen. 'Nafarroa', euskaldun guztien bilgune politikoa.... Ulertu, ulertu genuen, baina diskurtso harendako beranduegi zela pentsatu ere bai. 'Euskadi' indartsu zegoen eta horri heldu genion. Argi dago tronpatu ginela».

ETA sortzeko garaian erakunde hark ukan behar zuen oinarrizko diskurtsoaz ziharduela ulertu nion.

Kostaldekokoak ez garenok bederen, badakigu BRANKA sendo batek zenbaterainoko garrantzia duen.

Mila esker, Txillardegia. Euskaldun bizirauteko Nafar Estatuaz zor dizugu.

## Chapeau, Txillar

Laura MINTEGI Idazlea

**C**hapeau Txillar" tituluaz zeraman zutabea idatzi nuen 1989an Txillar zoriontzeko. EHUK Jose Luis Pinillos honoris causa izendatu zuen eta Txillar, ikasle andanarekin batera, aretoan sartu zen «honoris fatxa» zeraman pankartaz, bonba fetidoaz eta «kanpora» ohi-katuz. El País egunkariaren arabera «Un grupo radical revienta el doctorado 'honoris causa' de Pinillos en el País Vasco. Álvarez Emparantza, senador de HB y filólogo, encabezó a los boicoteadores». Ordurako 60 urte zituen, senataria zen, idazlea eta linguista ezaguna. Lankide gehienak bulegoetan gelditu ziren bitartean, berak egin zuen kontzientziak eskatzen ziona. Halakoxea zen bera, esaneko eta hurbileko. Oso-oso.

Txipi Ormaetxeak maitasun handiz koordinatu zuen "Txillardegia lagun giroan" liburu ederrean azaldu nuena ez dut berriz aipatuko, ([http://www.buruxkak.org/liburuak\\_ikusi/1950/txillardegia\\_lagun\\_giroan.html](http://www.buruxkak.org/liburuak_ikusi/1950/txillardegia_lagun_giroan.html)), ezta nola ezagutu nuen Txillar, UEU Ustaritzen egiten zen garaian eta ETAREN bilerak txintxeta bätetik eskegitako paper zatiaz edozein hormatan iragartzen zirenean.

Gaur idazle konprometitua ekarri nahi nuke gogora, intelektual kontsekuentea. Ur Apalategik "Literatura eta Iraultza" mahai-inguru antolatu zuen 2004an Txillar omentzeko eta Iban Zaldia, Juanjo Olasagarre eta hirurok jarri gintuen mintzo. Jendartearen Txillar zegoen, Joxeaustin Arrietaren ondoan. Ez dakit orduko hartan asmatu nuen adierazten zenbat irakatsi digun idazleoi. Gaur berretsi nahi nuke nire eskerrona berarengandik ikasi genuelako literatura iraultzailea ez dela nobela komandoz eta militantez betetzen duena, baizik eta apostu literario berritzaile eta ausartak egiten dituen. Berak erakutsi zigun arriskuak hartzen eta ezer ez ematen jakintzat, erratu arren. *Merci*, Txillar, eta musu bat.

# Homenaje nacional para un referente euskaltzale

GARA

La muerte ayer del lingüista, escritor y euskaltzale José Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi, fue recibida con pesar en el mundo euskaltzale. Partidos políticos, como EA y Aralar, y entidades que trabajan a favor del euskara como Euskal Herrian Euskaraz, el Observatorio Behatokia y Kontseiluak destacaron la importancia de la impronta dejada por este intelectual y político, a la vez que la izquierda abertzale anunciaba que celebrará el próximo día 29 en Donostia –los detalles se darán a conocer más adelante– un homenaje nacional a la memoria del histórico militante.

La izquierda abertzale quiso expresar su agradecimiento a «este gran abertzale que tantos merecimientos reunió durante su vida». Recordó «la gigantesca aportación» efectuada por este abertzale cuyos principales caballos de batalla fueron el euskara y la patria, y que «fue además quien abrió caminos al defender que la patria se basa en el idioma, convirtiéndose en símbolo para las generaciones venideras».

Aralar por su parte, destacó que Txillardegi fue un «precursor e impulsor de la izquierda abertzale y del cambio en la política de Euskal Herria». «Tuvi- mos el placer de compartir militancia con él en Aralar y su actuación fue siempre sincera y cruda, en ocasiones demasiado cruda. También conocimos de primera mano la apuesta firme por la paz y las vías exclusivamente políticas de una persona que impulsó la lucha en contra de la dictadura en tiempos de Franco», subrayaron.

Eusko Alkartasuna lamentó la pérdida de un «actor importante en la historia de Euskal Herria del último medio siglo, no sólo en el ámbito político, sino también en el lingüístico y en el de la creación literaria. (...) Un militante en ámbitos fundamentales para la construcción nacional de Euskal Herria».

El secretario general de Kontseilua, Paul Bilbao, por su parte, quiso recordar el duro trabajo que realizó Txillardegi para vivir en euskara y que lo hizo con determinación y coherencia. «Aprendió y enseñó euskara, fue un renovador de la litera-



Txillardegi, en una concentración de LAB en Donostia contra la Constitución española, en 2004.  
Jon URBE | ARGAZKI PRESS

tura en euskara, impulsó el euskara batua, reivindicó la sociolingüística del euskara eta también la llenó de aportaciones... Todo ello nos demuestra que tuvo el euskara y su futuro como compañero de viaje».

El movimiento Euskal Herria Euskaraz también quiso dejar claro que Txillardegi seguirá siendo un referente en el futuro y que «ahora nos toca a nosotros

seguir andando en el camino que nos dibujó». Por último, el Observatorio de los Derechos Lingüísticos declaró que ha sido «modelo» entre los que «hemos querido vivir en euskara» y por el trabajo que realizó en pro de los derechos lingüísticos. Además, recordó todo el trabajo que realizó en muchos aspectos de la recuperación del idioma» de Euskal Herria durante su vida.

## Jose Luis Alvarez Enparantza «Larresoro»

**Miren AZKARATE** Euskaltzaina, Euskal Filologian doktorea eta zinegotzia Donostiako Udalean

**G**aur eguerdian izan dugu Jose Luis Alvarez Enparantzaren heriotzaren berri eta hedabideak –irriatiak bereziki– bati eta besteari galdezka hasi dira, nola hartu duzu berria, zer pentsatu duzu... Askok izango dira egun hauetan argitaratuko diren artikulak, euskal literaturari eginiko ekarpena ekarriko dugu gogora, euskararen aldeko lana, unibertsitateko irakaslea aipatuko dugu, eta, nola ez, politikagintzan izan duen protagonismoa. Lerro asko irakurriko ditugu Txillardegi izenburu eramango dutenak. Nik *Larresoro* ekarriko dut gogora. Izan ere, ezaguna zaigun norbait joaten denean, irudi eta oroitzapen sorta etorri ohi zaigu burura; eta niri, berria jakin orduko, «Sustrai bila» izena ateratzen zait. Hari horri tiraka, «Euskara Batua zertan den» ere bai. *Larresorok* idatzitakoak biak.

Euskara batuaren beharraz jabetuta, 60ko hamarkadan ekin zion Jose Luis Al-

varez Enparantzak batasunaren aldeko lanari. 1964an Baionako Biltzarra antolatu zuten idazleen artean bera zen eragileetako bat. Hala aitortzen dio Jean Luis Davant euskaltzainak: «Hor dago Biltzarraren lana, eta Txillardegiri zor diogu nagusiki, Lafitteren axolbea baztertu gabe». Handik irten ziren euskara baturako lehen proposamenak: idazkerari buruzkoak (nb, np kontsonante multzoak, eta in, il, h noiz gorde eta noiz ez, ba, ez edo bait- nola idatzi, etab.), deklinabidearen gainekoak deklinabidea –mugagabea, mugatu singularra eta mugatu plurala bai kontsonantez amaitzen diren hitzena eta bai bokalez amaitzen direnena, bizidunena eta bizigabeena–, aditz laguntzailea, eta Hiztegi Batuko lehen zerrenda dei dezakeguna, «h» letrari zegokiona, bokal artean edo hasieran aspirazioa behar zuten hitzen zerrenda. Horiek izan ziren Biltzarrak ontzat eman zituen puntuak: «Batasunari buruz,

euskaltzale guzietan erabaki hauek betetzen hasteko eskatzen diegu; eta bereziki Euskaltzaindiari egiten diegu dei bat, bere aipamen guziaz gure erabaki hauek aztertu ondoren onar ditzan». Horren eragile eta aitzindari izan zen Jose Luis Alvarez Enparantza. Ez da, beraz, harrizkoa, Jean-Louis Davantek esatea Euskara Batuari atea ireki ziola Baionako Biltzarrari esker 1964ko abuztuaren hondarrean.

Gero izan dut honen guztiaren berri. Askok lehenago izan nuen, baina, esku artean 1970ean *Larresoro* goitzenarekin argitaratu zuen «Sustrai bila. Zenbait euskal koropilo», euskaraz alfabetatu nahi genuen lehen eskuliburua. Handik lau urtera etorriko zen «Euskara Batua zertan den» (1974), hau ere *Larresoro* egile zuena. Bide luzea egin du euskarak, baita Euskara Batuak ere, ordutik hona. Gaur badakigu ez dela oso egokia euskaraz «deklinabidea» dugula esatea, eta deklinabide atzikiak ez zaizkiola izenari edo hitzari

lotzen, nahiz oraindik ere askotan horrela azaltzen diegun ikasleei. Baina, euskaraz alfabetatu eta euskara landu nahi genuenok orduan jabetu ginen «mugagabe» izeneko egitura bazela gure hizkuntzan; idazkeran finkatu beharreko puntuak bazirela, aditz laguntzaile batua ikasi beharko genuela, eta aditz trinkoen paradigmatik ere hor genituela zain. Nik, eta nik bezala beste askok, *Larresororen* eskutik egin genituen Euskara Batuaren ibilbidearen hasierako urteak. Horixe da gaur eguerdian indartsu piztu den oroitzapena. Askotan esaten dugu «izan direlako gara; garelako izango dira». Ezin da jakin zer gertatuko zen Baionako Biltzarra izan ez balitz, Euskara Baturik izango ote genukeen, edo nolako izango zen balizko Euskara Batu hori. Baina ez da zalantzarik gaur guztion artean landu eta umotu dugun eredu zordun zaiola Jose Luis Alvarez Enparantza *Larresorori*, bere kemenari eta lanari.

## Luma eta bihotza

### Andoni SAGARNA

Euskaltzaindiko lker sailburua eta Gipuzkoako ordezkaria

L arunbat eguerdia. Mezu bat dut telefonoan. Uste gabeko albiste txarra: Txillardegia, Larresoro, Igara, Usako zendu zaigu. Ez da nornahi izan. Ingeniaría, idazlea, hizkuntzalaria, soziolinguista, politikaria, goitik beharainoko intelektuala. Horiek guzti-gatik estimatzen nuen Jose Luis; nola ez! Euskal Herriari ondare bikaina utzi dio.

Asko izango dira nik baino hobeto haren merezimenduak aztertu eta gorai patuko dituztenak. Nik gaur Txillardegirengan aurkitu nuen beste balio handi bat azpimarratu nahi nuke: gizon guztiz maitagarria zela. Askok haren lumak paperean utzitako arrastoen bidez ezagutuko zuten Jose Luis, eta horren araberako irudia izango dute. Esango dute pentsamendu sakonekoa zela, ausarta zela, aurrerakoa zela, eta zorrotza eta gogorra ere bazela, norbaiten pentsaera edo jokabidea salatzen modukoa iruditzen zitzaionean. Nik ere irudi horixe nuen. Irudi horixe bakarrik nuen.

Irudi hori, ordea, bere handitasunean, motza da. Nik Txillardegia benetan erbestetik itzuli zenetik aurrera ezagutu dut. Haren lumak isuritako ideiek soilik ez zuten gizonaren handitasun osoa islatzen. Hurbiletik ezagutu ahala oharitzen zinen bihotz samurreko gizon baten aurrean zinela. Noizean behin Donostian egiten genuen topo eta solasalditxo bat izaten genuen. Familiako gorabeherak, osasun-kontuak aipatzen genituen, baina ezinbestean euskara eta Euskal Herria izaten ziren mintzagai nagusiak. Ni bera baino baikorragoa izaten nintzen iritzi gehienetan, eta egia esan baikortasun hori azpimarratzen saiatzen nintzen, iruditzen zitzaidalako eskertu egiten zuela, eta halaxe adierazten zidan gainera batzuetan. Oraintxe ere horrelako zerbait esanez egin nahi nioke agur: «Lasai, Jose Luis, har ezazu atsedena. Jende gaztea badator, zure ametsak egia bihurtzen saiatuko dena. Argi izpi berriak ere ikusten hasi gara». Agur Jose Luis.

## Biografia

**1929:** Nace en Donostia.  
**1956:** Se licencia en Ingeniería Industrial en Bilbo.  
**1947:** Primeras actividades de propaganda abertzale repartiendo hojas de Eusko Gaztedi.  
**1949:** Escapa de casa por primera vez por su implicación política estudiantil. Miembro de EIA (Eusko Ikasleen Alkartasuna).  
**1950:** Primer encarcelación.  
**1951:** Miembro del grupo estudiantil Ekin.  
**1957:** Publica su primera novela, "Leturiaren egunkari ezkutua", considerada la primera novela moderna en euskara.  
**1957:** Nombrado académico no de número de Euskaltzaindia. En 2004 es nombrado miembro de honor.  
**1958:** Participa en la fundación de ETA.  
**1960:** En agosto, detenido y encarcelado.  
**1961:** Primer exiliado público de ETA en Ipar Euskal Herria cuando formaba parte del primer Comité Ejecutivo. En el exilio colaboró con Euskaltzaindia para la instauración del euskara batua.  
**1963:** Crea en Baiona Euskal Idazkaritza Elkarte para fomentar la cultura vasca.  
**1965:** Las autoridades francesas le expulsan a Bélgica. Forma parte de la Delegación Exterior de ETA. Publica su primer ensayo, "Huntaz eta hartaz", renovador en el género.  
**1966:** Tras disensiones con la Oficina Política, pone en marcha la revista "Branka" para contrarrestar el papel de la Oficina Política. La revista duró siete años (15 números) y reflejó el ánimo de los exiliados de esta corriente. Txillardegia había sido vetado en Zutik. El grupo propugnaba un Frente Nacional de Liberación.  
**1967:** Junto a otros militantes, abandona ETA. Prosigue el grupo Branka. Se licencia en Lingüística en París.  
**1977:** Vuelve del exilio. Participa en la fundación de ESB (Euskal Sozialista Biltzarrea).  
**1978:** Participa en la fundación de Herri Batasuna.  
**1979:** Promotor del movimiento Euskal Herriaren Euskaraz.  
**1980:** Expulsado de ESB por las protestas sobre el tratamiento del euskara en la dirección.  
**1981:** Se instala temporalmente en Los Ángeles por motivos académicos.  
**1989:** Elegido senador por HB por Gipuzkoa.  
**1989 (20-N):** Presente en el Hotel Alcalá, en el atentado contra Josu Muguruza.  
**1991-2001:** Director de la revista de sociolingüística "Bat".

**2001:** Abandona Batasuna y se integra en Aralar. En 2003 se presenta a las elecciones por Aralar en Donostia.  
**2007:** Abandona Aralar por discrepancias por la participación en un acto por las víctimas de ETA y presentarse a las municipales en coalición con Ezker Batua.  
**2008:** Participa en la lista electoral de ANV como candidato al Congreso.

## Bibliografía

### NARRAZIOA

• "Kosmodromo" (1984, Haranburu).

### NOBELA

• "Leturiaren egunkari ezkutua" (1957, Euskaltzaindia).  
 • "Elsa Scheelen" (1969, Lur); Berrargitalpena Elkar, 1978.  
 • "Peru Leartzako" (1960, Itxaropena); Berrarg. Elkar, 1979.  
 • "Haizeaz bestaldetik" (1979, Egilea editore); Berrargitalpena Elkar, 1988.  
 • "Exkixu" (1988, Elkar).  
 • "Putzu" (1999, Elkar).  
 • "Labartzari agur" (2005, Elkar).

### SAIAKERA

• "Huntaz eta hartaz" (1965, Goiztiri); Berrargitalpena Elkar, 1983.  
 • "Hizkuntza eta pentsakera" (1972, Gero-Mensajero).  
 • "Sustral bila. Zenbait euskal koropilo" (1970, Irakur Saila).  
 • "Euskal Herrikerdaldun herrietara" (1978, Egilea editore).  
 • "Euskal gramatika" (1978, UEU).  
 • "Euskal kulturaren zapalke" 1956-1981 (1984, Elkar).  
 • "Soziolinguística matemati-koa" (1994, UEU); Xabier Isasirekin elkarlanean.  
 • "Euskal Herria helburu" (1994, Txalaparta).  
 • "Lingua Navarrorum" (1996, Orain).  
 • "Euskararen aldeko borrokan" (2004, Elkar).  
 • "Horretaz" (2007, Elkar).

### HIZKUNTZALARITZA

• "Euskara batua zertan den" (1974, Jakin).  
 • "Oinarri bila" (1977, Egilea editore).  
 • "Euskal Gramatika" (1978, Ediciones Vascas).  
 • "Euskal fonología" (1980, Egilea editore).  
 • "Euskal dialektologia" (1983, Egilea editore).  
 • "Euskal azentuz" (1984, Elkar).  
 • "Elebidun gizartearen azterketa matematikoa" (1984, UEU).

### OROITZAPENAK

• "Gertakariaren lekuko" (1985, Haranburu).

### HISTORIA

• "Antigua 1900" (1991, Kutxa).  
 • "Santa Klara, gure uharte ezezaguna" (2004, Kutxa).

## Txillardegia, aitzindaria

Patxi ZABALETA Abokatua, politikoa eta euskaltzain osoa

Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegia, Larresoro... izen anitz eta gauza asko izan da bere bizitzan Euskal Herriarendako eta euskararendako. Joan direnekin maiz gertatu ohi den bezala, Txillardegiri buruz ere, zertzelada ikusgarri batzuk gehiago azpimarratuko dira egun hauetan agian bere beste ezaugarri esanguratsu baina arruntagoak baino. Omenezko lerro apal haue- tan nire asmoa da beste ezaugarri horien aipamen xumea egitea.

Frankismoaren garai beltzetan ETA erakundearen sortzaileetako bat izan zela bezain egia da Jose Luisek beti adoretz eta kemenez defendatu zuela politikagintzaren lehentasuna eta bakearen premia- zko beharra.

Ezkerrekotzat eta abertzaleztat eduki zuen beti bere burua eta zintzo eta zorrotz jokatzeko joera zeukan edonolako egoeratan eta bai- ta hortik kalteak etorriko bazitzaizkion ere. «Ez nago modan» hain- beste eta hainbestetan aitortu behar izandako gizakia zen eta irizpideak beti lehenetsi behar direlako uste sendoarekin jarduten zuen bizitzako arlo guztietan, arerioaren neurriari jaramonik egin gabe. Eztabaidari sutsua eta pentsamenduarekin beti kezkatuta ez zuen inoiz bere ikuspeirik ezkutatu edo leundu nahi izaten; horixe zen alde batetik bere xarma eta bestetik bere muga.

Euskara XXI. mendeko premiei erantzuteko moduko hizkuntza izatera eraman behar dugula-eta, hizkuntzaren batasun literarioa bultzatzeari lotu zitzaion su eta gar. Alde batetik, hizkuntzalaritzan, eta, bestetik, literaturgintzan, bide berriak urratu zituen eta gaur egungo euskal prosak ekarpen erabakigarriak zor dizkio.

Txillardegiren kezka nagusia zen herriak hizkuntza beharrezkoa duela eta Euskal Herriak euskara ezinbesteko ezaugarria duela alda- rrikatzea. Ikuspegi horretatik egin zituen inoiz kritika eta arbuia- pen mikatzak ere, ez baitzen ezertan bere xedea adiskideak egitea izate- ten. Hurbileko harreman pertsonalean gizaki goxo, leun eta maita- garria zen, baina aldi berean eztabaidetan maiz irmo eta zorrotze- gia. Bere eleberri guztietan -"Leturiatik" "Exkixura"- aurki litezkeen pertsonaien antzekoa.

Monzonekin harreman bitxia eduki zuen eta biak dira nolabait Euskal Herriko gaurko egoera askoren aitzindariak. Erbestea eta etxe-koen espetzea eta mota anitzeko jazarpena jasan ondoren joan zaigu Jose Luis lasaitasuna eta atsedena hartzera. Herrigintzan eta euskalgintzan aitzindari izandakoa joan zaigu. Zehazki lehentasun politikoko ezker abertzalea amestu zuen politikari zintzo eta zorrotza. Aitzindari guztiei bezala bere asmoak osorik betetzen ikusi gabe joatea gertatu zaio, nahiz eta egin diren urratsak ukaezinak izan.



**PUERTAS Y PERSIANAS METÁLICAS**  
Automáticas y manuales  
Instalación, Reparación, Motorización, Mantenimiento.

**MOTORICE SU PUERTA desde 650 €**

INSTALACIÓN COMPLETA (anclajes, electricidad)  
Con los sistemas de motorización más punteros del mercado

Reparación de puertas y persianas metálicas, automáticas y manuales.  
Recambios originales de todas las marcas.  
Mantenimiento preventivo en todo tipo de puertas y persianas.  
Venta e instalación de puertas y persianas.

- Basculantes - Correderas
- Pie - Enrollables - Cancelas
- Cortafuegos, etc...

**OFERTA VÁLIDA PARA TODO EL PAIS VASCO**

☎ 678 84 79 69  
☎ 685 70 96 30

**Atención inmediata**  
Llámanos, te sorprenderemos

C/Erragoitia 2.F. Polígono ARASO (IRUN)  
[www.sosfire.net](http://www.sosfire.net)